## EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA

**2866**

**134/2012, FORU AGINDUA, maiatzare 14ko. Honen bidez onartu egiten da Arabako Mendi Federazioaren estatutuen aldaketa.**

Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Federazioei buruzko urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuak 65. artikuluan adierazitakoaren arabera, lurralde federazioen estatutuak eta horien aldaketak egoki den foru aldundiko kirol gaietako organo eskudunari aurkeztu behar zaizkio, hark behin betiko onar ditzan.

Arabako Foru Aldundian, Euskara, Kultura eta Kirol Sailak du eskumena kirol gaietan.

Irailaren 23ko 368/2008 Foru Aginduaren bidez (ALHAO, 113. zk., 2008ko urriaren 3koa), Arabako Mendi Federazioaren estatutuak onartu ziren.

Arabako Mendi Federazioak, 2012ko maiatzaren 8ko idazkiaren bidez (zenbakia: 6770), irailaren 23ko 368/2008 Foru Aginduaren bidez onartutako federazioaren estatutuetako hainbat artikulu aldatzea eskatu du. Horretarako, aparteko batzar orokorraren 2012ko martxoaren 30eko akta erantsi du, zeinaren eranskinean aldatutako artikuluak jaso diren.

Horregatik, dagozkidan ahalmenez baliatuz, ondokoa

XEDATU DUT

Lehenengoa. Onarpena ematea irailaren 23ko 368/2008 Foru Aginduaren bidez onartutako Arabako Mendi Federazioaren estatutuak aldatzeari, hain zuzen ere, foru agindu honetako eranskinean jasoriko artikuluak, eta eranskinean adierazitako idazkera berean.

Bigarrena. Ebazpen hau eta eranskina ALHAOn argitaratzea.

Hirugarrena. Foru agindu honen bidez onartutako Arabako Mendi Federazioaren estatutuen aldaketaren onarpenaren kopia bidaltzea Eusko Jaurlaritzako Kirol Erakundeen Erregistrora.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko maiatzaren 14a.– Euskara, Kultura eta Kirol Saileko diputatua, ICIAR LAMARAIN CENITAGOYA.

**Foru Aginduaren ERANSKINA**

ARABAKO MENDIZALE FEDERAZIOAREN ESTATUTUAK
"ARABAKO MENDIZALE FEDERAZIOA"

**6. artikulua.- Xedeak.**

Bere helburuak lortzeko, eginkizun hauek beteko ditu Federazioak:

a) Kirol jarduera federatua antolatzea Arabako lurralde eremuan.

b) Kirol modalitateko eta bertan txertatuta dauden diziplinetako lehiaketa ofizialak eta jarduerak antolatzea Araban.

c) Parte hartzeko eta lehiatzeko bere arauak ezartzea, nahiz eta, hala dagokionean, lurralde eremu zabalagoko federazioek emandako arauak ere aplikatuko diren.

d) Mendi modalitateko ordezkaria izatea Euskal Autonomia Erkidegoan, eta bere estamentu guztiek esparru horretako lehiaketa guztietan parte hartzeko bideak jartzea.

e) Bere modalitateko federazio lizentziak izapidetzea, gero Euskadiko Mendizale Federazioak eman ditzan, azken honek ezarritako betebehar eta prozedurei jarraiki.

f) Bere jarduera aurrera eramaterakoan sortzen diren kirol gatazken berri jakitea eta haiek ebaztea, organo judizialen eta arbitralen eskumenaren kaltetan izan gabe.

g) Bere arauak betearaztea eta diziplinako ahalmena haien arabera erabiltzea.

h) Euskadiko Mendizale Federazioarekin batera lan egitea debekatuta dauden botika gaiak eta multzoak eta kirolean arauz kanpokoak diren metodoak erabil ez daitezen aurre neurriak hartzen, erabilera horiek ikuskatzen eta zigortzen, horretarako xedatzen den araudiaren arabera.

i) Mendizale kirol modalitateko teknikariak eta epaileak prestatzen laguntzea, horretarako xedatzen den araudiaren arabera.

## DEPARTAMENTO DE EUSKERA, CULTURA Y DEPORTE

**2866**

**ORDEN FORAL 134/2012, de 14 de mayo, que aprueba la modificación de los Estatutos de la Federación Alavesa de Montaña.**

El Decreto 16/2006, de 31 de enero, de las Federaciones Deportivas del Pais Vasco señala, en su articulo 65, que los estatutos de las federaciones territoriales, así como sus modificaciones, se presentaran para su aprobación en el órgano competente en materia de deportes de la correspondiente Diputación Foral.

Correspondiendo la materia de deportes de la Diputación Foral de Álava al Departamento de Euskera, Cultura y Deporte.

Por Orden Foral 368/2008 de 23 de setiembre, publicada en el Boletin Oficial del Territorio Historico de Álava número 113, de 3 de octubre de 2008, se aprobaron los Estatutos de la Federación Alavesa de Montaña.

Con escrito número 6770, de fecha 8 de mayo de 2012, la Federación Alavesa de Montaña solicita la modificación de determinados articulos de los estatutos de dicha federación, aprobados por Orden Foral 368/2008 de 23 de setiembre, aportando el Acta de la Asamblea General Extraordinaria celebrada el 30 de marzo de 2012 y figurando como Anexo los articulos modificados.

En su virtud, en ejercicio de las facultades que me competen.

DISPONGO

Primero. Aprobar la modificación de los Estatutos de la Federación Alavesa de Montaña, aprobados mediante Orden Foral 368/2008, de 23 de setiembre, en aquellos artículos y con la redacción recogida para los mismos en el Anexo a esta Orden Foral.

Segundo. Publicar la presente resolución y el anexo en el BOTHA.

Tercero. Remitir copia de la aprobación de la modificación de los Estatutos de la Federación Alavesa de Montaña aprobada por esta Orden Foral al Registro de Entidades Deportivas del Gobierno Vasco.

Vitoria-Gasteiz, 14 de mayo de 2012.– Diputada de Euskera, Cultura y Deporte, ICIAR LAMARAIN CENITAGOYA.

**ANEXO a la Orden Foral**

ESTATUTOS DE LA FEDERACIÓN ALAVESA DE MONTAÑA
"ARABAKO MENDIZALE FEDERAZIOA"

**Artículo 6.- Fines.**

Para el cumplimiento de sus fines la Federación ejercerá las siguientes funciones:

a) Organizar la actividad deportiva federada en el ámbito territorial de Álava.

b) Organizar competiciones oficiales y actividades de la modalidad deportiva y disciplinas integradas, en el ámbito de Álava.

c) Establecer sus propias normas de participación y competición, sin perjuicio de la aplicación, en su caso, de las normas dictadas por federaciones de ámbito territorial superior.

d) Ostentar la representación de la modalidad deportiva de montaña en el ámbito autonómico e instrumentar la participación de todos sus estamentos en competiciones de dicho ámbito.

e) Tramitar las licencias federativas de su modalidad para su expedición por la Federación Vasca de Montaña "Euskal Mendizale Federazioa" conforme a los requisitos y procedimientos establecidos por ésta.

f) Conocer y resolver los conflictos deportivos que se originen en el desarrollo de su actividad, sin perjuicio de la competencia de los órganos judiciales y arbitrales.

g) Velar por el cumplimiento de sus normas reglamentarias y ejercer la potestad disciplinaria con arreglo a las mismas.

h) Colaborar con la Federación Vasca de Montaña "Euskal Mendizale Federazioa" en la prevención, control y represión del uso de sustancias y grupos farmacológicos prohibidos y métodos no reglamentarios en el deporte, conforme a la normativa que al efecto se determine.

i) Colaborar en la formación de las y los técnicos y jueces de la modalidad deportiva de montaña conforme a la normativa que al efecto se determine.

j) Bere diru baliabideak zertarako erabili eta nola banatu erabakitzea; bere jarduera aurrera eramateko beste erakunde batzuek eskualdatzen dizkioten baliabideak kudeatzea, eta bere baliabide guztiak zuzen erabiltzen direla zaintzea.

k) Kide dituen kirol klub eta elkarteei ematen dizkien dirulaguntzak esleitzea eta kontrolatzea.

l) EAEko administrazioekin batera elkarlanean aritzea kirola bultzatzeko bere helburuak betetzerakoan, eta bereziki, 14/1998 Legeak federazioei zuzenean ematen dizkien lankidetza eta aholkularitza eginkizunetan.

m) Bere estatutuak eta araudiak prestatzea.

n) Dagokion lurralde eremuan eta bere kirol modalitatean emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea eta, ahal den neurrian, bermatzea.

ñ) Naturaren eta ingurunearen zaintza edo babesa sustatzea.

o) Eta, oro har, bere kirol modalitatean aritzea bultzatzeko eta hobetzeko egokia den guztia xedatzea.

**16. artikulua.- Eraketa.**

1.- Batzar Nagusia osatuko dute kirol klub eta elkarteetako estamentuen ordezkariek, kirolariek, teknikariek eta epaileek, proportzio hauetan:

a) Atxikitako kirol klub eta elkarteetako estamentuen ordezkaritza: batzarkide guztien ehuneko 80.

b) Kirolarien ordezkaritza: batzarkide guztien ehuneko 10.

c) Teknikarien eta epaileen ordezkaritza: batzarkide guztien ehuneko10.

Teknikari eta epaileei dagokien ehunekoa teknikari eta epaileen artean banatzeko, estamentu horietako bakoitzak erroldan sartuta duen lizentzia kopuruaren proportzioan egingo da kalkulua.

2.- Batzar Nagusiko kideen kopuru zehatza hauteskunde ororen aurretik zehaztuko du Hauteskunde Batzordeak, hauteskundeetarako dagoen errolda kontuan hartuta eta, hala dagokionean, Hauteskunde Araudiak ezarritako irizpideen arabera.

3.- Batzar Nagusiko kideak gehienez ere 200 izango dira.

**17. artikulua.- Kluben ordezkaritza.**

1. Kirol klub eta elkarteen estamentuak Batzar Nagusian edukiko dituen ordezkariak klub eta elkarteen ordezkariek hautatuko dituzte beren kideen artetik, baina baldintza hauek beteta: batetik, EAEko Kirol Erakundeen Erroldan izen emanda egotea eta Arabako Mendizale Federazioko kide izatea; bestetik, gutxienez 15 lizentzia izatea izapidetuta, hauteskundeak egiten diren denboraldian aktiboan egon diren eta aurreko denboraldian lizentzia eduki duten kirolarienak eta, gainera, kirolari horiek hauteskundeak egiten diren denboraldian kirol jarduera nabarmena eduki dutenak eta aurreko denboraldian eduki dutenak izan behar dute. Kirol jarduera nabarmena zer den zehazteko irizpideak arauz ezarriko dira.

Nolanahi ere, Batzar Nagusian lehen aipatutako eskakizunak betetzen dituen kirol klub edo elkarte bakoitzeko gutxienez ordezkari bat egotea bermatuko da.

2.- Klub edo elkarte bakoitzak eman beharreko boto kopurua federatuta dituen pertsonen kopuruaren arabera haztatuko da. Elkarte bakoitzak eman beharreko boto kopuruaren eskala, izan dezakeen arauzko garapenaren kaltetan izan gabe, ondorengo hau izango da:

15 eta 150 federatu bitartean: boto bat.

151 eta 400 federatu bitartean: bi boto.

400 federatutik gora: hiru boto.

**65. artikulua.- Hauteskunde Batzordeak.**

Federazioak hauteskunde batzarra izango du, zeinek hauteskundeak sustatzearen eta zuzen bideratzearen ardura izango duen.

Hauteskunde batzarra hiru kidek osatutako organoa da, batek lehendakari lanetan jardungo du eta beste batek idazkari lanetan. Horiek, bata zein bestea, eurek hirurek aukeratuko dituzte, eta hiruren artean aukeratu ezinean izanez gero, zaharrenak jardungo du lehendakari lanetan eta gazteenak idazkari lanetan.

j) Establecer el destino y la asignación de los recursos económicos propios, gestionar los recursos que les transfieran otras entidades para el desarrollo de su actividad, y controlar la correcta aplicación de todos sus recursos.

k) Asignar y controlar la aplicación de las subvenciones que concedan a los clubes y agrupaciones deportivas adscritas a ella.

l) Colaborar con las administraciones del País Vasco en el cumplimiento de sus fines de promoción deportiva y, en particular, en aquellas funciones de cooperación y asesoramiento que la Ley 14/1998 atribuye directamente a las federaciones.

m) Elaborar sus estatutos y reglamentos.

n) Promover y, en la medida de lo posible, garantizar la igualdad de mujeres y hombres en la práctica de su modalidad deportiva en su ámbito territorial.

ñ) Promover la conservación o protección de la naturaleza y de medio ambiente.

o) Y, en general, disponer cuanto convenga para la promoción y mejora de la práctica de su modalidad deportiva.

**Artículo 16.- Composición.**

1.- La Asamblea General estará integrada por los representantes de los estamentos de clubes y agrupaciones deportivas, deportistas, técnicas y técnicos, y juezas y jueces en la siguiente proporción:

a) Una representación para el estamento de clubes y agrupaciones deportivas adscritas del 80 por ciento del total de miembros de la Asamblea.

b) Una representación para el estamento de deportistas del 10 por ciento del total de miembros de la Asamblea.

c) Una representación para los estamentos de técnicos y técnicas y de jueces y juezas del 10 por ciento de los miembros de la asamblea.

El reparto del porcentaje que corresponda al estamento de técnicos y técnicas por un lado y al estamento de jueces y juezas por otro lado se realizara en proporción al número de licencias, incluidas en el censo, correspondientes a cada uno de esos estamentos.

2.- La cifra exacta de miembros de la Asamblea General se determinará, antes de cada elección, por la Junta Electoral, a la vista del censo electoral existente y de acuerdo con los criterios que, en su caso, establezca el Reglamento Electoral.

3.- El número máximo de miembros de la Asamblea será de 200.

**Artículo 17.- Representación de los clubes.**

1.- Las y los representantes del estamento de clubes y agrupaciones deportivas se elegirán por y entre la representación de los clubes y agrupaciones que, figurando inscritas en el Registro de Entidades Deportivas del País Vasco y adscritas a la Federación Alavesa de Montaña “Arabako Mendizale Federazioa” tengan al menos tramitadas 15 licencias correspondientes a deportistas en activo durante la temporada de celebración de elecciones y que la hayan tenido en la temporada anterior y, además, hayan realizado actividad deportiva significativa durante la temporada de celebración de elecciones y que la hayan tenido en la temporada anterior. Reglamentariamente se establecerán los criterios para determinar qué se entiende por actividad deportiva significativa.

En todo caso se asegurará la presencia en la Asamblea General de un representante, como mínimo, por cada club o agrupación deportiva que cumpla los requisitos, anteriormente citados.

2.- El número de votos que corresponde emitir a cada club o agrupación será ponderado atendiendo al número de personas federadas. La escala del número de votos que corresponde emitir a cada club será, sin perjuicio de su desarrollo reglamentario, la siguiente:

Entre 15 y 150 federados: Un voto.

Entre 151 y 400 federados: Dos votos.

Más de 400 federados: Tres votos.

**Artículo 65.- Junta Electoral.**

En la Federación existirá una Junta Electoral encargada de impulsar el proceso electoral y velar por su correcto desarrollo.

La Junta Electoral será órgano colegiado que estará formada por tres miembros, actuando uno de ellos como Presidente o Presidenta y otro como Secretario, cargos que serán elegidos entre los propios miembros para asumir dichas funciones y, en caso de no designarse entre ellos, actuará como Presidente o Presidenta el de mayor edad y como Secretario el de menor edad.